

Bizkaiko Foru Aldundiaren **ERABAKIA**, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauan aurreikusitako dirulaguntza izenduna ULIBARRI EUSKALTEGIA KOOP. E. entitateari, emateko dena, eta dirulaguntza horren hitzarmen arautzailea izenpetzeko baimena ematen duena. Helburua: 2026. urtean partez finantzatzea entitate horren «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua.

ACUERDO de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se concede la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026, a favor de la entidad ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E., para la financiación parcial del proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» durante el año 2026, y se autoriza la suscripción del convenio regulador de la misma.

Andre agurgarria:

Ilma. Sra.:

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen artean, besteak beste, euskara sustatzekoa dago, bai eta euskara Bizkaian beren beregi sustatzekoa.

ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. de Bilbao euskararen irakaskuntzan espezializatutako irabazi-asmorik gabeko entitate bat da, eta adin ezberdinetako pertsonak alfabetatzen eta euskalduntzen jarduten du maila akademiko ezberdinetan. Halaber, entitateak euskararen erabilera sustatzeko ekimen eta proiektu ezberdinak sustatu ditu.

2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onartu zuen Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarriak, 2. zenbakian, hau ezartzen du: Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenak egin ahal izango ditu zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota Sektore Publikoko Kontratuen Legean edo

Entre las competencias del Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran, entre otras, la promoción del euskera y el impulso especial del euskera de Bizkaia.

ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. es una entidad sin ánimo de lucro especializada en la impartición de la enseñanza del euskera y realiza una labor de alfabetización y euskaldunización de personas de diferentes edades en diferentes niveles académicos. Asimismo, ha promovido diferentes proyectos e iniciativas encaminadas a fomentar el uso del euskera.

La Disposición Adicional Quinta del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, en su apartado 2 señala que la Diputación Foral de Bizkaia podrá celebrar convenios con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos regulados en la Ley de Contratos del Sector Público o





administrazio-arau berezietan.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horretako 6.2 artikuluan adierazten denez, haren aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Bestalde, Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26.1 artikulua, zuzeneko dirulaguntzei buruzko kapituluaren, xedatutakoaren arabera, hitzarmenak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026. urteko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari buruzko 4. epigrafean aurreikusten du ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitateari (IFZ F48199673) HAMAHIRU (13.000,00€) EUROko foru dirulaguntza emango diola (335106 programaren 0406 organikoko 2019/0121 proiektuaren 45100 aurrekontuko partidaren kontura) «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua partez finantzatzeko 2026ko ekitaldian. Proiektu horrek 48.000,00 euroko aurrekontua izango du 2026an.

Azaldutakoa dela bide, ikusita zer ezartzen duten Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17, 39 eta 66. artikuluek Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, eta erabiliz Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru

en normas administrativas especiales.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Por su parte, el artículo 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dentro del capítulo relativo a las subvenciones directas, prevé que los convenios son los instrumentos habituales para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

A tales efectos, la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2026, en el anexo de Subvenciones Nominativas, dentro del epígrafe 4 relativo al Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte, prevé la concesión de una subvención foral por importe de TRECE MIL (13.000,00€) EUROS con cargo a la partida presupuestaria 45100, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2019/0121 en favor de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. (NIF F48199673), para la financiación parcial del proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» durante el año 2026. Dicho proyecto, durante 2026, se ha presupuestado en un total de 48.000,00 euros.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39, 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskara, Cultura y Deporte, y en uso de las facultades conferidas en virtud de la Disposición Adicional Quinta y concordantes del





Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriak eta harekin bat datozenek emandako ahalmenak, behean sinatzen duenak erabaki hau aurkeztzen dizu, bidezkotzat jotzen baduzu, Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu dezan eta, hala badagokio, onetsi dezan.

ERABAKIA

Lehenengoa.- ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. de Bilbao entitateari (IFZ F48199673) abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauan (2026. urteko aurrekontu orokorre buruzkoa) jasotako dirulaguntza izenduna ematea, HAMAHIRU MILA eurokoa (13.000,00 €) «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua partez finantzatzeko, partida honen kontura: 45100 aurrekontuko partida, 335106 programa, 0406 organikoa, 2019/0121 proiektua.

Bigarrena.- Baimena ematea lehenengo puntuarekin bat emandako dirulaguntza izenduna arautzen duen hitzarmena izenpetzeko (hitzarmen hori erabaki honen eranskinean agertzen da).

Hirugarrena.- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena emango zaio aipatutako hitzarmena sinatzeko eta hitzarmena garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari dagokionez:

A) Hauek izendatzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari:

- Euskara zuzendari nagusia, edo berak eskuordetzen duen pertsona.
- Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Ataleko burua, edo berak eskuordetzen duen pertsona.

B) ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen proposamena onartu da, bere ordezkari modura honako hauek izendatzeko:

- Josu Lartategi Yustos.
- Eider Isasi Liñero.

Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, quien suscribe eleva a V.I., en el sentido de que si lo estima pertinente someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, si procede, el siguiente

ACUERDO

Primero.- Conceder la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026 a favor de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. (NIF F48199673) por importe de TRECE MIL euros (13.000,00 €) para la financiación parcial del proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» que se imputará a la partida presupuestaria 45100, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2019/0121.

Segundo.- Autorizar la suscripción de un convenio, que se adjunta como anexo al presente acuerdo, por el que se regula la subvención nominativa concedida de conformidad con el punto primero.

Tercero.- Facultar a la diputada foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para la firma del referido convenio, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

Cuarto.- A los efectos de la Comisión de Seguimiento del convenio:

A) Se designan como representantes de la Diputación Foral de Bizkaia:

- El director general de Euskera o persona en quien delegue.
- La jefa de la Sección de Traducción, Terminología y Tecnología Lingüística o persona en quien ésta delegue.

B) Se acepta la propuesta de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. de designar como sus representantes a:

- Josu Lartategi Yustos.
- Eider Isasi Liñero.





Bosgarrena.- Erabaki hau ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea.

Quinto.- Notificar el presente Acuerdo a ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. y al Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Euskara Zerbitzuko burua / La jefatura del Servicio de Euskera. En ausencia, FEDERICO HIGON GARCIA

O. E. / Vº Bº

Euskara zuzendaritza nagusia / La dirección general de Euskera ISAAC AMEZAGA LARRAZABAL

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio.
/ De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGAARRUZA



ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. ENTITATEAREN ALDE BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2026. URTEKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO ABENDUAREN 29KO 7/2025 FORU ARAUAN JASOTAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO HITZARMENA. HELBURUA: «BILBOKO XIII. BERBAGUNEA» PROIEKTUA PARTEZ FINANTZATZEA 2026KO EKITALDIAN.

CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PREVISTA EN LA NORMA FORAL 7/2025, DE 29 DE DICIEMBRE, DE PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2026, A FAVOR DE ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. PARA LA FINANCIACIÓN PARCIAL DEL PROYECTO «BILBOKO XIII. BERBAGUNEA» DURANTE EL AÑO 2026.

Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean

En Bilbao, en la fecha de la firma electrónica

BILDU DIRA

Alde batetik, Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA andrea, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den heinean.

Bestetik, D. Patxi Joxe AGIRREGOMEZKORTA LEANIZBARRUTIA jauna, ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen izenean eta haren ordezkari, erakunde horren zuzendari legez.

REUNIDOS

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA, en su calidad de diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

De otra, D. Patxi Joxe AGIRREGOMEZKORTA LEANIZBARRUTIA, en nombre y representación de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E., en calidad de director de la misma.

JARDUTEN DUTENAK

Lehenengoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu legez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Erakundeen Hautespen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko eta berari dagozkion ahalmenen arabera, eta 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduak ezartzen duena garatzeko dagozkion eskumenen arabera.

Bigarrenak, ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen zuzendari legez, eta Andrés María Urrutia Badiola notario jaunak 2001eko urriaren 11n haren alde egiletsitako ahalorde-ekritura dela bide.

Alderdi biek, euren karguei dagozkien eginkizunen jardunean, elkarri aitortzen diote hitzarmen hau

INTERVIENEN

La primera, en calidad de diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte aprobado por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia.

El segundo, en calidad de director de la entidad ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E., y en virtud de escritura de poder otorgada a su favor ante el Notario de Bilbao, D. Andrés María Urrutia Badiola el 11 de octubre de 2001.

Ambas partes, en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y



emateko gaitasun osoa eta, horretarako, honako hau

plena capacidad para otorgar el presente convenio y al efecto,

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen artean, besteak beste, euskararen sustapena eta Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen alde jarduten duten elkarteei laguntza ematea agertzen dira.

BIGARRENA.- ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. euskararen irakaskuntzan espezializatutako irabazi-asmorik gabeko entitate bat da, eta adin ezberdinetako pertsonak alfabetatzen eta euskalduntzen jarduten du maila akademiko ezberdinetan. Halaber, entitateak euskararen erabilera sustatzeko ekimen eta proiektu ezberdinak sustatu ditu.

Entitateak adierazten du ez dagoela foru-dirulaguntzen onuraduna izatea ezinezkoa egiten duen ezein egoeratan, 5/2005 Foru Arauko 12. artikulua xedatzen duenaren arabera, eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 42. artikulua arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

HIRUGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen diru-laguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, hitzarmenak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2026rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauak ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen aldeko 13.000,00 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusi du (45100,

PRIMERO.- Que entre las competencias del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran, entre otras, la promoción del euskera, así como el apoyo a las asociaciones que trabajan a favor del euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia.

SEGUNDO.- Que ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. es una entidad sin ánimo de lucro especializada en la impartición de la enseñanza del euskera y realiza una labor de alfabetización y euskaldunización de personas de diferentes edades en diferentes niveles académicos. Asimismo, ha promovido diferentes proyectos e iniciativas encaminadas a fomentar el uso del euskera.

La entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

TERCERO.- Que conforme a lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

En este sentido, la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026, con cargo a la partida presupuestaria 45100, programa 335106, orgánico 0406, proyecto



335106, 0406 aurrekontuko partidaren kontura, 2019/0121 proiektua), 2026ko ekitaldian zehar partez finantzatzeko «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua.

«Bilboko XIII. Berbagunea» proiektuaren helburua da Bilbon euskararen erabilera gizarteratzea jende ugari biltzen duen ekitaldi baten bidez; ekitaldi horretan, euskaldun asko biltzen dira euskara erabiltzeko eta euskaraz gozatzeko. Bada, helburu orokor hori funtsezko legez agertzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren euskara sustatzeko jarduketaren planaren barruan.

Proiektu horrek 48.000,00 euroko aurrekontua izango du 2026an.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horretako 6.2 artikuluan adierazten denez, haren eremutik kanpo geratzeko dira sektore publikoko entitateek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoeekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, hitzarmen honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektzionala txertatzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

2019/0121, ha previsto una subvención nominativa de 13.000,00 euros a favor de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. para la financiación parcial del proyecto denominado «Bilboko XIII. Berbagunea» durante el ejercicio 2026.

El proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» tiene como objetivo la socialización del uso del euskera en Bilbao a través de la organización de un evento multitudinario en el que se reúnen numerosos vascohablantes para usar el idioma y disfrutar de él. Este fin general se considera fundamental por la Dirección General de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia dentro de su plan de actuación para la promoción de la lengua.

Dicho proyecto, durante 2026, se ha presupuestado en un total de 48.000,00 euros.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2, quedarán excluidos del ámbito de la citada Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este convenio incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.



Illo horretatik, haren tramitazioan "generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena" erantsi da, 112/2024 Foru Dekretuaren, azaroaren 14koa, 3. artikulua aipatzen duena.

LAUGARRENA.- Lehen adierazitako helburuarekin, alderdiek hitzarmen hau itundu dute, zeinaren bidez 2026. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna arautzen den ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen alde, honako estipulazio hauekin bat:

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026. urteko aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauan jasotako 13.000,00 (hamahiru mila) euroko dirulaguntza izenduna arautzea ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. (IFZ F48199673) entitatearen alde «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua partez finantzatzeko 2026ko ekitaldian.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Dirulaguntzen Erregelamenduko 50.3.c) artikulua ondoz ondo, foru-dirulaguntza hau bateragarria izango da onuradunak hitzarmen honen xedea garatu eta burutzeko edozein Administrazio edo erakundetatik jasotzen duen beste edozeinekin.

Bestalde, dirulaguntza hau ez da estatuko laguntzat hartzen, EBFTren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ez baititu aldatzen Europar Batasunean trukaketarako eta lehiarako baldintzak interes erkidearen kontra.

Hitzarmen honi dagokionez, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede

En este sentido, en su tramitación se incorpora el «informe de evaluación previa del impacto en función del género» al que hace referencia el artículo 3 del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre.

CUARTO.- Que, con la finalidad expuesta anteriormente, las partes han consensuado el presente convenio, por el que se regula la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026 a favor de la entidad ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E., a tenor de las siguientes

ESTIPULACIONES

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del presente convenio la regulación de la subvención nominativa por importe de 13.000,00 (trece mil) euros prevista en la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026 a favor de ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. (NIF F48199673) para la financiación parcial del proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» durante el ejercicio 2026.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y del artículo 50.3.c) del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la presente subvención foral será compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente convenio.

Por otro lado, la presente subvención no se considera ayuda de Estado, a tenor del artículo 107, apartado 1 del TFUE, dado que no altera las condiciones de los intercambios y de la competencia en la Unión en contra del interés común.

A los efectos del presente convenio se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera



den jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat etorri, behar-beharrezkoak izan eta ezarritako epean egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Tributuak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenetan. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

Bigarrena.- Finantzaketa.

Bizkaiko Foru Aldundiak ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitateari (IFZ F48199673) HAMAHIRU MILA EUROko (13.000,00 €) dirulaguntza ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Zenbateko hori partida honen kontura ordainduko da: 45100 aurrekontuko partida, 335106 programa, 0406 organikoa, 2019/0121 proiektua. Xedea entitateak 2026ko ekitaldian burutuko duen «Bilboko XIII. Berbagunea» proiektua partez finantzatzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2026. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 7/2025 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna dela bide.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren aurrean. Horretarako ez da beharrezkoa izango entitate onuradunaren inolako bermerik, ez baita ikusten hitzarmen honen bitartez bereganatutako konpromisoak ez betetzeko arriskurik. Ordainketa hitzarmen hau sinatu ondoren.

Edozelan ere, foru-dirulaguntza honen obligazioa onartu eta ordainketa onartu aurretik, egiaztatuko da ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitateak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta ez dela inoren zordun dirua

indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

Segunda.- Financiación.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a abonar un total de TRECE MIL EUROS (13.000,00 €) a ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. (NIF F48199673), con cargo a la partida presupuestaria 45100, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2019/0121, para la financiación parcial del proyecto «Bilboko XIII. Berbagunea» durante el ejercicio 2026, en virtud de la subvención nominativa consignada en la Norma Foral 7/2025, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026.

La subvención será tramitada para su abono en un único pago, por parte del Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas en virtud de este convenio. El abono se realizará una vez firmado el convenio.

En todo caso, previo al reconocimiento de la obligación y al abono de esta subvención foral se comprobará que ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad



itzultzeko ebazpen baten ondorioz.

Egiaztapena egin eta ikusten bada entitate horrek ez duela betetzen goian ezarritakoa, hamar (10) eguneko epean egoera hori konpon dezala eskatuko zaio, eta halaber jakinaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, foru-dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela, Administrazioak horren gaineko ebazpena eman ondoren.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Dirulaguntza jaso duen proiektua egitea.
- b) 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen Araudiko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak justifikazio-kontua aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa; justifikazio-kontu hori 2027ko martxoaren 31ra arte (egun hori barne) aurkeztu beharko du Euskara Zerbitzuko bulegoetan (Bilboko Recalde zumarkalea 30, 5. solairua). Informazio hau jaso beharko du kontu horrek:

1.- Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

2.- Eginiko jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituen:

a) Eginiko jardueren egotzitako gastu eta sarreraren egoera-orria. Gastu eta sarreraren egoera-orriak 1. inprimakiko egitura izan beharko du.

b) Aurreko a) letran adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen- zein ordainketa-eguna jasotzen dituen; 2.a), 2.b), 2.c) eta 2.d) inprimaketako egituraren arabera egingo da zerrenda hori. Justifikazioa egiteko epea amaitzen den egunean ordainduta

Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido anteriormente, esta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

Tercera.- Justificación de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención concedida se compromete a:

- a) Realizar el proyecto subvencionado.
- b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación del proyecto realizado por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta 31 de marzo de 2027 (incluido), en las oficinas del Servicio de Euskera (sitas en Bilbao, c/. Alameda Recalde, 30 5º) de una cuenta justificativa del proyecto, que contenga la información que se indica a continuación:

1.- Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2.- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del formulario 1.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura de los formularios 2.a), 2.b), 2.c) y 2.d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente



dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Sarreraren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko a) letran adierazitako diru-sarreraren zerrenda sailkatu bat egingo da (dirulaguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen; 3.a) eta 3.b) inprimaketako egituraren arabera egingo da zerrenda hori.

d) Entitate eskatzailean behar bezalako ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitortpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak c) letran berariaz adierazitakoak dira.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren b) letran adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

f) Baldin dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen berezko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopurua baino, gutxienez ere hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago behar beste entitate ondasun edo zerbitzuok hornitu edo egiten dituenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan azaldu behar dira, eta, haien artean aukeratzeko, eragimen- eta ekonomia- irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

g) Fakturen eta ordainketei buruzko dokumentuen kopiak aurkeztea.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura de los formularios 3.a) y 3.b).

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Indicación, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Aportación de copias de las facturas y de los documentos que soporten los pagos.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.



Jarraipena egiteko eta hitzarmen honen xedearen eta jasotako funtsen aplikazioaren betetze zuzena kontrolatzeko, alderdi biko jarraipen-batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Euskara zuzendari nagusia —edo berak eskuordetzen duen pertsona— eta -Euskara Zerbitzuko burua —edo berak eskuordetzen duen pertsona—, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean; eta ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen bi ordezkari, hark izendaturikoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 22. artikulua jasotzen duena betez.

Jarraipen Batzordearen burua Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari bat izango da, eta idazkaria, ULIBARRI EUSKALTEGIA, KOOP. E. entitatearen ordezkari bat. Batzordea, nahitaez, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan zehar bilduko da, 15 eguneko aurrerapenarekin deituta, hitzarmen honen betetzearen azken emaitza ebaluatzeko. Beronen indarraldian beste bilera batzuk ere deitu ahal izango dira, hitzarmeneko bi alderdietako edozeinek hala eskatuta.

Jarraipen Batzordeari buruz hitzarmenak beren beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

Bosgarrena.- Aldi baterako indarraldia.

